

udal**top**

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

#udal**top**17

Euskara gertakari kulturaletan

JOHAÑE ETCHEBEST
(EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA)

[www.udal**top**.eus](http://www.udaltop.eus)



#udaltop17

Euskara gertakari kulturaletan

JOHAÑE ETCHEBEST
(EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA)

AURKIBIDEA

Testuinguru soziolinguistikoa	3
Erronka	3
Kultura eta Euskara	4
Pastorala eta bere testuinguru egokia	5

Testuinguru soziolinguistikoa

Gaiaren muinera itzuli aurretik, garrantzitsua da gure egitasmoa Iparraldeko egoera soziolinguistikoaren testuinguruan kokatzea. Egoera horrek oihartzuna izango duelarik agian zuen lurraldeetan.

Hasteko, datu batzuk:

- 2021ean, Iparraldeko 16 urtetik gorako herritarren artean (255.000 lagun), % 20 euskaraz hitz egiteko gai dira, eta % 9 ulertzeko gai dira.
- Lehen mailan eskolatutako ikasleen %42 atal elebidunetan eta murgiltze-ataletan matrikulatuta daude, %21 bigarren mailan.
- Beste zifra bat, Euskararen kaleko erabilera %4,9koa da 2021ean, 2016tik behera Soziolinguistika klusterrak egin duen ikerketaren arabera.
- Euskara pixkanaka eskolako hizkuntza bihurtzen ari da, baina gero eta gutxiago kalean erabiltzen den hizkuntza, partekatze hiza hizkuntza.

Euskalgintzako eragile askok partekatzen dugun egiaztapen horretatik abiatuta, gure erronka komuna da euskararen praktikari zentzua ematea edo berrematea, eskola-esparru instituzionaletatik edo bestelakoetatik kanpo.

Erronka

Iparraldean euskal kultura defendatzen duen egitura izanik eta hizkuntzarik gabeko kulturarik ez dagoela kontuan izanik, ordezkatzeko dudak Euskal Kultur Erakundeak (EKE) problematika hau planteatu du bere jardura-testuinguruan, hots, euskal kulturaren elkarreko ekosisteman (230 elkartekide ditu EKEk, iparraldeko hiru probintzietan banatuta).

2 estrategia irudikatu dira.

- Eskola esparruan sentsibilizazio estrategia bat: euskal kulturako artistak eta ekitaldiak ezagutzeko ibilbideak proposatzea ikasle elebidunei, euskararen ikaskuntzaren inguruko testuinguru kulturalaz jabetu daitezela. Ideia orokorra da artistak ezagutzeko, haien erreferentziak eta unibertso sortzaileak ezagutzeko eta, bigarren fase batean, ikasleak artistarekin batera sortze-planteamendu batera eramatea.
- Kultur eragileak euskararen praktikaren inguruan kontzientziatzeko estrategia, ondortik azalduko dudana.

Kultura eta Euskara

Iparraldean, batez ere, elkarrekin dira euskal kultura biziarazten dutenak ekitaldien bidez, kontzertu, jaialdi, antzezlan, film-proiektzio... (2024an gure agendan zerrendaturiko 1900 baino gehiago) eta transmisioaren eta sorkuntzaren bidez.

EKEren lehen helburua elkarrekin horiei, gau tematikoak proposatzea izan da, beren ekitaldietan hizkuntzak duen lekua galdezkatzeko.

Hala, [Plazara](#) kolektiboak tailer ludikoak proposatu ditu, euskara presente egon daitekeen momentu eta lekuez ohartzeko aukera ematen dutenak: komunikazioa, jendearen harrera, aurkezpenak, ostata...

Hasierako prestakuntza horren barruan, hausnarketak eratu dira, urrats horretan sakontzeko, batez ere, gertaera mota jakin batzuekin.

Izan ere, badira komunitate bat bere osotasunean mugiarazten duten sorkuntza molde originalak, plaza ikuskizunen terminoaren pean biltzen ditugunak. Pastoralak, maskaradak, kabalkadak edo beste Libertimendu eta kaskarrot izenekin ezagutzen dira.

Ikuskizun hauek badute berezitasun bat: herri edo auzo bat bere aniztasun osoan elkarrekin: gazteak eta ez hain gazteak, emakumeak eta gizonak, klase sozial ezberdinak, Euskaldun eta ez euskaldunak.

Dantza, musika, antzerkia, bertsu nahasten dituen ikuskizuna sortzea da egitasmoa. Horretan bakoitzak bere lekua aurkitzen du, nahiz Euskara hutsean emana den ikusgarria.

Hala ere, puntu hau ikuskizunak irauten duen bitartean guztiek (aktoreek eta ikusleek) argi badute, ez da ebidentzia bat ekitaldiaren inguruko testuinguruan: prestaketa, entseguak, komunikazioa, publikoaren harrera, segitzen duen festan...

“Euskara gertakari kulturaletan” dispositiboaren helburua da ikuskizun horien antolatzaileak eta eragileak euskarak proiektu osoan zehar presentzia izan dezakeela eta izan behar duela jabetzea. Testuinguruak naturaltasunez praktikatzeko aukerarik ematen ez badu ere (euskaldun nahikorik ez), hizkuntzaren parametroa ekintza guztietan txertatu behar da, eragile bakoitza Euskararen aldeko urratsa ematera bultzatua izan dadin: onarpena, ikaskuntza, praktika...

Pastorala eta bere testuinguru egokia

Plaza ikuskizun dinamiko horien artean dago pastorala.

Zuberoan aurkeztuta (funtsean), urtero herri ezberdin bat da antzerki kantatu eta dantzatu hori aurkezten duena, Euskal Herriko (edo beste nonbaiteko) historiako pertsonaia ospetsu baten bizitza kontatzen duena. Udan herrian bertan egiten da.

Baserritarrak horrela elkartzen dira 6 hilabetez, astean behin edo bitan, beraien papera, joan-etorriak, kantatzeko testuak, talde kantuak ikasteko.

Asteroko elkarretaratze horiek, elkar ezagutzeko, elkarrekin une gozoak partekatzeko eta gure kasuan, Euskararen garrantziaz jabetzeko aukera bilakatzen dira.

2025ean Barkoxe herria da pastorala aurkeztuko duena. EKEren hasierako formakuntza egin zuten antolatzaileetako batzuk, boluntario agertu ziren beraien pastoraletan "Euskara kultur gertakarietan" proiektua martxan jartzeko.

Otxanda Quéheille antolatzaileetako batek aurkeztu digu Barkoxen martxan jarri den ibilmoldea.

Otxandak bideoan azaltzen digunez, pastoralaren antolakuntzaren baitan Euskara batzorde bat sortzea izan zen lehen urratsa. Batzorde hori sortzeko bi baldintza bete behar dira:

-pastoralaren administrazio-kontseiluan batzorde horren beharraz eztabaidatzea, balioztatzea eta ondotik eramaileek pastoraletako eragileei aurkeztea.

-pastoraletako beste batzordeekin zeharkakotasunean lan egingo duen batzordea izatea: sorkuntza, logistika, komunikazioa, publikoaren harrera eramaiten duten batzordeekin besteak beste.

Bigarren urratsa parte-hartzaile guztiei galdetegi bat aurkeztea da, euskaraz zer maila duten, praktikarako zer motibazio duten eta abentura kolektibo horretan zer galga eta blokeo senti ditzaketen identifikatzeko.

Izan ere, kontua ez da pertsona batzuk alde batera uztea edo frustrazioak sortzea; pastorala, batez ere, abentura kolektibo bat da, non bakoitza ondo sentitu behar den. Eta baldintza horietan bakarrik, dinamika inklusibo batean, bakoitzak pauso bat eman ahal izango du Euskararen alde.

Datuak bildu ondoren, euskaraz aurkezpenak eta hitz-hartze kolektiboak egiteko gailuak ezar daitezke, ulertzen ez dutenak integratuz: itzulpen-kaskoak, itzultzaile pertsonalizatuak, kartelak, grabazioak...

Beste kontu delikatuagoa da hiztunek beren artean eta ulertzen duten baina hitz egiten ez duten pertsonekin frantsesera lerratzea.

Hasiera batean Euskaraldiko « Aho bizi/Belarri prest » sistema proposatzea pentsatu zen, baina Euskara Batzordeak artifizialtzat eta inposatutzat jo zuen.

Nahiago izan dute hastapen batean, dantzarietara proposatzea, gaiarekin sentsibilizatuta zeuden talde murriztu bat baitira. Eta gauza xume bat probatzeko aukera eman diete: osoki euskalduna den beren taldean, elkarrizketa frantsesera lerratzen denean, horretaz ohartzen denak berriz pitz dezan euskarazko eztabaida. Eta bere talde murriztuaren esperimendu ondoren, eragile guztiak presente dauden uneetara zabaltzea ariketa. Ideia delarik pixkanaka beste eragileak kontzientziaztea eta jende berriarekin Euskarazko komunikatzeko ohiturak sortzea.

Esperimentazio horiek egiten ari dira pastoralaren lehen emanaldia egin arte, uztail bukaeran.

Euskara batzordea laguntzen duen Plazara kolektiboarekin egiten da, aldiari aldiko aholkuak emanez eta tailer espezifikoak proposatuz.

Adibidez, "Besta kit" tresna ezagutzeko eta horretan trebatzeko formakuntza bat proposatu da, guztiari edari eta janari eskaera bat Euskaraz egiteko aukera ematen diena. Pastoralaren egunean tabernan eta ogitartekoetan ariko diren boluntarioak formatzeko helburuan trebatu dira batzordeko kideak. Eta pastoraleko entseguen ondorengo gauean ere eskainiko dute tresna.

Ibilbidea irailean ebaluatuko dute batzordeko kideek, Plazarak eta EKEk.

Ziur aski, azken galdetegi bat aurkeztuko zaio aktoreen sentipena baloratzeko. Helburua izango da gestioaren etapetan atzera egitea, funtzionatu duena eta sortu ahal izan diren tentsioak baloratzea.

Baina elementu bat oso argi agertu zen hasieratik. EKEk edo Plazara-k nahitaez utzi behar diote ekimena Euskara batzordeari. Aholkuak eta ideiak eman ahal bazaizkie, erakundeko kideek bakarrik baloratu ahal izango dute taldean ekimen berri bat martxan jartzea egokia den ala ez.

Proposamena, behin baloratuta, Plazara kolektiboak formalizatuko du gero, EKErentzat.

Eta 2026an pastorala antolatuko duen herriari eskainiko diote dispositiboa, hobetzea helburu.

Angeluko kabalkadako antolatzaileei ere aurkeztuko diete, beste plaza ikuskizun molde horretara egokitzeko asmoz. Nahiz bestelako testuinguru linguistiko batean izango den, Kabalkada honetako aktoreak gehien-gehienentzat ez-euskaldunak direlako.

udal**top**

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN**
TOPAKETAK

www.udaltop.eus